Basque - Babesa Liburu Santuek - Protection Scriptures

Jeremias 1:18 Gotorleku egiten zaitut gaur, burdinazko zutabe eta brontzezko hesi, herrialde guztiaren aurka: Judako errege eta buruzagien aurka, apaiz eta herritarren aurka.

Ezekiel 3:18 Gaiztoren batek hil egin behar duela esaten badut, eta bere jokabide txarretik aldendu eta bizirik jarrai dezan zuk ez baduzu gaiztoa ohartarazten, hil egingo da bere erruarengatik, baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren kontu.

Jeremias 6:27 Jaunak esan zidan: «Neure herriaren aztertzaile izendatzen zaitut; azter ezazu zein den haren jokabidea.

Lebitarrena 26:19 Zuen segurtasun harroa hautsiko dut: zuen zerua burdina bezain lehor eta zuen lurra brontzea bezain elkor bihurtuko ditut.

Deuteronomioa 23:5 izan ere, Egiptotik irten eta honako bidean, ez zitzaizkizuen ogia eta ura eskaintzera atera; moabdarrek, gainera, Beor-en seme Balaam alokatu zuten eta Mesopotamiako Petor hiritik etorrarazi, zuek madarikatzeko.

Erromatarrei 12:21 Ez zaitzala gaitzak mendera, baizik eta menderatu gaitza ongiaz.

Salmoak 142:8,10 Emadazu goizean goiz zeure maitasunaren berri, zuregan baitut uste on. Erakustazu jarraitu behar dudan bidea, zuregana jasoa baitut gogoa. 10 Erakustazu zure nahia betetzen, zu baitzara nire Jainkoa. Zeure espiritu ongileaz gida nazazu toki egokitik.

Salmoak 93:12 Zorionekoa, Jauna, zuk hezten duzuna, zeure legean eskolatzen duzuna.

Esaera Zaharrak 27:12 Arriskua ikusi eta ezkutatu egiten da zentzuduna, heldugabeak aurrera segitu eta kaltea jasan behar.

Filipoarrei 2:16 bizia ematen duen mezuari tinko eutsiz. Horixe izango dut nik harrotzeko bide Kristo agertuko den egunean, nire lehia eta nekeak ez baititut alferrik emanak izango.

Isaias 49:4 Ni, berriz, hau ari nintzen pentsatzen: «Alferrik nekatu naiz, hutsean eta zertarako gabe akitu ditut indarrak». Baina Jaunaren eskuetan zegoen nire eskubidea, nire Jainkoaren eskuetan nire lansaria.

Salmoak 75:4 Han hautsi ditu guda-armak: arkuaren geziak, babeski eta ezpatak.

Hebrearrei 13:21 Bakearen Jainkoak gai egin zaitzatela egite on ororen bidez haren nahia betetzeko; burutu dezala guregan berari atsegin zaion guztia Jesu Kristoren bidez. Aintza beroni menderen mendetan! Amen.

1 Korintoarrei 16:15 Senideok, eskabide bat egin behar dizuet: badakizue Estebanen etxekoak izan direla Akaiako lehen kristauak, eta fededunen zerbitzura eman dituztela beren buruak.

Filipoarrei 1:27 Hauxe besterik ez dizuet eskatzen: zuen jokabidea Kristoren berri onari dagokiona izan dadila. Ni zuek ikustera joan ala ez, gauza bera entzun nahi nuke zuetaz: gogo berean sendo zaudetela eta, elkarrekin bat eginik, berri onarekiko leialtasunaren alde borrokan ari zaretela,

1 Korintoarrei 15:58 Beraz, senide maiteok, ez aldatu asmoz eta iraun sendo, egunetik egunera Jaunaren lanean gero eta gogotsuago jardunez, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

Kolosarrei 4:12 Herritar duzuen Epafrasek ere, Kristo Jesusen zerbitzariak, agur egiten dizue; zuen alde eginahalean otoitzean dihardu beti, tinko iraun dezazuen, Jainkoaren nahia betetzera erabat emanak.

2 Erregeak 19:34 Neuk gerizatuko dut eta salbatuko hiri hau, naizena naizenagatik eta neure zerbitzari Davidengatik”».

Jeremias 15:20,21 Herri honen aurrean brontzezko hesi txit sendo egingo zaitut; borroka egingo dizute, baina menderatu ez, zeurekin bainauzu ni, libratzeko eta garaipena emateko. Hala diot nik, Jaunak. 21 Libratuko zaitut gaizkileen eskuetatik, askatuko erasotzaileen menpetik».

Salmoak 54:19 Onik atera zuen nire bizia izan nituen erasoetatik, etsaiak hain ugari izan arren.

Ezekiel 30:24 Babiloniako erregearen besoak indartuko ditut eta neure ezpata jarriko diot eskuan; faraoiari, berriz, besoak hautsiko dizkiot, eta hilzorian intziri egingo du haren aurrean.

Apokalipsia 3:18 Aholku hau ematen dizut: eros iezadazu zeuretzat sutan garbituriko urrea, aberats zaitezen, eta soineko zuriak zeure burua janzteko, larrugorri lotsagarrian ager ez zaitezen; erosi kolirioa begietan emateko, ikus dezazun.

1 Joan 3:17 Norbaitek lur honetako ondasunak baditu eta, bere senidea premian ikusirik, ez badio errukiz laguntzen, nola izan dezake bere baitan Jainkoaren maitasunik?

Isaias 50:4 Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriak adore-hitzez bizkor ditzadan. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun diezaiodan.

Salmoak 17:40 Indarrez jantzi ninduzun gudurako, menpean jarri zenizkidan arerioak.

2 Samuel 22:40 Indarrez jantzi ninduzun gudurako, menpean jarri zenizkidan arerioak.

Salmoak 88:44 Hari, berriz, ezpata-ahoa ere kamustu, eta borrokan eutsi

ez;

Ezekiel 13:6 Ikuskari hutsalak eta iragarpen gezurtiak dituzte; "Jaunaren mezua" esaten dute, Jaunak bidali ez dituen arren; halere, beren hitza nik betearaztea espero dute.

Lebitarrena 26:37 Gudutik ihesi doazenak bezala egingo duzue elkarrekin estropezu, nahiz eta inork eraso ez. Ez zarete gauza izango etsaiei aurre egiteko.

1 Korintoarrei 14:8 Edota turutak soinu nahasia jotzen badu, nor prestatuko da gudurako?

Job 15:24 Larriak eta nahigabeak izu-ikaraz inguratzen dute, erasotzeko prest dagoen erregeak bezala;

1 Kronikak 12:8 Joela eta Zebadias, Gedorko Jerohamen semeak.

1 Kronikak 12:33,38 Isakarren leinuko berrehun buruzagi, beren menpe zituzten ahaide guztiekin; aldian aldiko gorabeherak aztertzen iaioak ziren hauek, Israelek zer egin behar zuen jakiteko; 38 Jordan ibaiaz ekialdera bizi ziren Rubenen eta Gaden leinuetako eta Manasesen beste leinu erdiko ehun eta hogei mila gizon, era guztietako armez gudukatzeko prest.

Lukas 10:19 Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menderatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk kalterik egin.

2 Korintoarrei 7:10 Izan ere, Jainkoaren asmoen araberako nahigabeak salbamenera garamatzan bizi-aldaketa dakar ondorio, eta horretaz damutu beharrik ez dago. Mundu honetatik datorkigun nahigabeak, berriz, heriotzara eramaten gaitu.

2 Timoteori 2:25,26 aurka jartzen direnak gozotasunez zentzatzen dakiena. Nork daki Jainkoak ez ote dien bihozberritzea emango, egia ezagut dezaten, 26 eta ez ote duten ihes egingo bere nahira makurtuak dituen deabruaren sareetatik?

Nehemias 4:15 Honela jarraitu genuen lanean egunsentitik izarrak agertu arte, jendearen erdiak lantza eskuan zuela.

Salmoak 72:24 zeure aholkuz nauzu gidatuko eta, azkenik, ospez zeureganatuko.

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org